

Donostiako piraten
abordajea, iazko Aste
Nagusian.

Imanol OTEGI | ARGAZKI PRESS

Donostiako Auzoetako Jai Herrikoien Koordinadorako ordezkaria da Josean Loza. Azken bi urteotan diru laguntzak %25 jaitsi dizkiete. «Jaitsiera 40.000 eurokoa izan da, gutxi gorabehera. Adibidez, aurten, 2001. urtean baino 26.000 euro gutxiago jasoko ditugu», azaldu du.

«Une honetan jai herrikoiak Donostian egoera larrian gaude. Alde batetik, krisiaren aitzakia-ekin, diru laguntzak dezente murriztu dira. Beste aldetik, urtez urte trabak, izapideak, inposaketak, debekuak... areagotzen ari dira», kontatu du.

Isunak ere izan dituzte. «Ordutegiak ez errespetatzeagatik aspaldidanik erabiltzen genituen jai gune batzuk debekatu egin dizkigute. Azpiegiturak non kokatu inposatzen digute. Azken finean, jai herrikoiak akabatu nahi dituzte. Jai guneak debekatzeko, bizilagunen kezak dituzte argudio; diru laguntzak murrizteko, krisian gaudela. Zerbait ez bazaie gustatzen edozein aitzakia jartzen dute; inposaketekin eta debekuekin konpontzen dute dena».

Lozaren esanetan, Udalak ez du jai herrikoien arrakasta onartzen. «Kontrolatzen ez dutena desagerrarazi nahi dute. Argiago ezin da esan», salatu du.

Eragozpenen aurrean, donostiarrak ez dira inolaz ere besoak gurutzatuta geratu. «Kalejira batzuk antolatu dira, prentsaurrekoak egin dira, Udalarekin bilerak izan dira... Aldiz, egia esan, ez digute kasurik egin, beraiekin ezin da negoziatu eta dena da inposaketa», azaldu du.

Donostian gauzak dezente zaildu dira azkenaldian. «Gauzak okerrera egin badute ere,



JOSEAN LOZA

DONOSTIAKO AUZOETAKO JAI
HERRIKOIEN KOORDINADORA

«Kontrolpean ez dagoena,
akabo; eta arrakastatsua
izanik, are gehiago»

aspaldiko kontua da. Pixkanaka-pixkanaka dena murrizten ari dira. Hiru edo lau jai eguntan jendeari parte hartzeko aukera emateko urte guztian zehar auzoz auzo egiten dugun lana ez dute onartzen. Beraien kontrolpean ez dagoena, akabo; eta arrakastatsua izanik, are gehiago», amaitu du Josean Loza Udalaren jokaera salatuz.

GERNIKA-LUMO

JONAN ZUNZUNEGI, JAI BATZORDEA

«Araudia prestatzen ari gara urteotako lanak etorkizunean ere balioa izan dezan»

Iazko San Roke jaietan istiluak egon ziren Gernika-Lumon. «Urtero bezala batzordeko kideok jai parte-hartzaileak prestatzen ari ginen. Pregoia botatzeko Etxerat eta errugbi taldea aukeratu genituen. Tamalez, 20 urte ziren dispertsioa hasi zela eta Gernikako errugbi taldea, berriz, Ohorezko Mailara igo berri zen. Abuztuaren 13an –jaiak hasi aurreko egunean–, Audientzia Nazionaletik pregoia talde horiek botatzeko debekua heldu zen. Egun horretan bertan batzarrerako premiako deialdia egin genuen, eta, pregoiaren ordeztan, jai batzordeak gertatutakoaren berri ematea eta txupina bota gabe jaitsieraren lehen zatia isilean egitea erabaki genuen. Herriak gertatutakoaren berri izatea eta gure ezadostasuna erakustea besterik ez genuen nahi», gogoratu du.

Baina, abuztuaren 14an, alkateak pleno berezarako deialdia egin zuen. «Jai batzordean erabakitakoari kasurik egin gabe, bere alderditik (EA) txupina 'nahitaez' bota behar zela proposatu zuten. Aralar, PNV eta PSOE alderdien aldeko botoekin proposamenak aurrera egin zuten. Batzordeari hitza ukatu eta alkateak berak bota zuten txupinazoa. Istilurik ez zuela nahi adierazi zuen», salatu du.

San Roke egunean gauzak are gehiago okertu ziren. «Gernikako kaleak jendez gainezka zeuden. Urtero egun horretan egin ohi den presoan aldeko kalejira ere debekatu zuten, egitarauan triki-poteorako deialdia zabaldu zuten. Trikitixaren lehen notekin batera hasi zen istilua. Inguruan zeuden haur, gazte, heldu eta nagusiak kontuan hartu gabe, Ertzaintzak triki-poteoko parte-hartzaileen kontrako karga hasi zuen. Lau atxilotu egon ziren eta zauritu asko. Neurri-gabeko eraso horren aurrean Utzi Herria Bakean herri plataforma sortu genuen, eta hurrengo egunerako deitutako manifestazioa oso jendetsua izan zen», azaldu du.

Urte luzez jai batzordetik egin den lanari esker, Gernikako jaiak ospe handikoak eta parte-hartzaileak direla esan du Jonan Zunzunegik. «Jai batzordea beti izan da zabala eta egun ere hogeik elkartetik gora ari gara elkarlanean», dio. San Roke jaietz gain, Gernikako sei auzotan ere ospatzen dituzte festak. Jai batzordean den-denak batzen dira.

«Azken hiruzpalau urteotan Jesus Mari Alberdi (Ezker Abertzalea) jaietako zinegotziarekin izandako harremana ezin hobea izan da. Diru laguntzen kudeaketarekin ados egoteaz gain, beti dago laguntzeko prest; azpiegiturak zein antolakuntzarako baliabideak gure esku jarritz lana asko errazten digu», azaldu du. Iaz jaietako egitarauan presoan argazkiak agertu zirela-eta, inputatu egin zuten Alberdi.

«Euskal Herrian herritarrok prestatu izan ditugu beti jaiak. Baina festen gaineko kontrol ezak beldurra eragiten die agintariei, eta gogor ari dira hori aldatu nahian. Orain araudia prestatzen ari gara urteotako lanak etorkizunean ere balioa izan dezan, jaiak irekiak, parte-hartzaileak eta herrikoiak izan daitezen», esan du. Baikor dago kongresuaren aurrean. «Guztion artean lan eginez jai herrikoien etorkizuna ziurtaturik dago. Prest gaude herri honen hitza isilarazi nahi dutenei aurre egin eta lanean jarraitzeko», esan du.